



BIDASOA OARSOKO INDUSTRIALDEA, S.A.
2023-2025 EUSKARA PLANA

Elebitasun orekatua, helburu





Aurkibidea

1	SARRERA.....	3
2	OINARRIAK	3
3	METODOLOGIA	3
4	DIAGNOSTIKOA	3
I.	ARDATZA.- ZERBITZU HIZKUNTZA.....	4
1.	Erakundearen irudia	4
1.1.	Errotulazioa eta ikus-entzunezkoa.....	4
1.2.	Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	4
1.3.	Ingurune digitala	4
2.	Herritarrekiko harremanak	4
2.1.	Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.....	5
2.2.	Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.....	5
II.	ARDATZA.- LAN HIZKUNTZA	5
1.	Barne-komunikazioa eta lan tresnak	5
1.1.	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia.....	5
1.2.	Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	6
1.3.	Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	6
1.4.	Baliabide informatikoak	6
2.	Pertsonen kudeaketa	7
2.1.	Pertsonen kudeaketa	7
2.2.	Lanerako prestakuntza.....	7
2.3.	Ikastaroen kudeaketa	7
3.	Kanpo-harremanak	7
3.1.	Administrazioa	7
3.2.	Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsone juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, e.a.....	8
3.3.	Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, e.a.....	9
4.	Kudeaketa sistema	9
4.1.	Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea.....	9
4.2.	Erabiltzaileak edo herritarrak eta produktu edo zerbitzua	10





4.3.	Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.....	10
5	2023-2025ko ILDO ESTRATEGIKO ETA EKINTZAK	11
6	ERANSKINA	12





1 SARRERA

Bidasoa Oarsoako Industrialdea, S.A.k (aurrerantzean, "BOISA") -zeinetan partaide diren Sprilur, Gipuzkoako Foru Aldundia, Irungo Udala, eta Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalen ordezkari diharduen Oarsoalde, S.A.- xedetzat du Bidasoa eta Oarsoaldeako eskualdeetan industria-ekimena eta inbertsioa sustatzea.

Txosten honetan jaso dugu BOISA sozietatearen Euskara Normalizatzeko Plana, 3 urterako plana, honen lehenengo euskara plana izango delarik.

Plan hau egin ahal izateko "EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak" izan dira ardatz nagusi, plan honen bitartez sozietatearen hizkuntza irizpideak ere ezarri direlarik.

Dokumentuaren helburua da BOISAren diagnostikoa egitea eta hura hobetzeko zer pauso eman behar diren zehaztea.

2023-2025 artean izango du balioa txosten honek, eta urtez urte beratu kudeatzeko kudeaketa plan bat egingo da.

2 OINARRIAK

Euskararen inguruko legeria eta Administrazioaren eskakizunak:

- o 86/1997 Dekretua: Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; dekretu hau berritze prozesuan dago.
- o VI. Plangintzaldia (2018-2022): Herri Administrazioetan eta sozietate publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko planak.
- o EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak.

3 METODOLOGIA

Lehenik eta behin sozietatearen diagnostikoa egin da eta diagnostiko hau egiteko "EAEko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak" (aurrerantzean, "irizpideak") erabili dira gida bezala, irizpide hauek zehaztutakoa hartu delarik erreferentzia bezala, eta bete beharreko helburutzat.

Diagnostiko hori egin ondoren ildo estrategiko batzuk eta ekintza batzuk zehaztu dira. Hauen betetze maila ebaluatzeko adierazle batzuk erabiliko dira, jarraipena urtean bitan egingo delarik.

Jarraipenen emaitzen arabera, finkatutako ekintzak berrikusiko dira.

4 DIAGNOSTIKOA

Diagnostiko honen abiapuntu bezala azpimarratu behar da langile guztiak (4 langile guztira) euskaldunak direla eta %75 euskaraz alfabetatuak (bik 3 H.E. eta hirugarrenak 4 H.E.). Egoera hau 2019 urtetik dago.

Lehenik irizpideen ardatz eta elementuen egoera aztertuko da eta jarraian egoera hori adierazle taulara eramango da.





I. ARDATZA.- ZERBITZU HIZKUNTZA

1. Erakundearen irudia

1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoa

1.1.1. Errotulazioari dagokionez berezi beharko genuke

- *Irun eta Lezoko sozietatearen bulegoak*: bi bulegoak eraikin batean daude eta dagokion jabeen erkidegoak dituzte, beraz kanpoko errotulazioa erkidegoari dagokio. Bi bulego hauetan dagoen errotulazioa nagusiki suteen kontrako eta larrialdi egoeratako seinaleak dira.
- *Nabalaldea poligonoaren kudeaketa*: kokapen honetan dagoen errotulazioa ere nagusiki suteen kontrako eta larrialdi egoeratako seinaleak dira.

1.1.2. Ikus-entzunezko elementurik ez da erabiltzen.

1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, pentsa-oharrak eta paper gauzak: elementu hauei dagokionez sozietateak:

- *Prensa-oharren idazketan hartzen dugu parte eta hauek elebidunak izaten dira.*
- *Paper gauzak talde mailako irizpideen arabera eginak daude eta euskarak lehentasuna dauka.*
- *Bestelako elementuak: talde mailan kudeatzen dira.*

1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak, prentsaurrekoak

Sozietateak ez ditu zuzenean ekitaldi mota hauek antolatzen, talde-mailako ekitaldiak direlarik.

1.3. Ingurune digitala

- Talde-mailako webgunea eta sozietatearen eta langileen helbide elektronikoa .eus domeinua dute.
- Talde-mailako webguneko hasirako orria gaztelaniaz dago; BOISAk bere gunea dauka bertan (espazio erabilgarrien informazioa, gardentasunaren ataria eta kontratugilearen profila), eta informazioa ele bietan zintzilikatzen da, gune hau bakarrik kudeatzen duelarik.
- Webgunea eta sare sozialen edukia talde mailan kudeatzen da.
- Mugikorretako APP-ei dagokionez, ez daukagu inolako APP-ik.

2. Herritarrekiko harremanak

Kontutan izan behar dugu sozietateak herritar arruntekin oso harreman gutxi dituela, sozietatearen harremanak alderdi interesdunak/interes-taldeak mugatzen direlarik, nagusiki.





2.1. Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

2.1.1. Idatzizko harremanak

Sozietatea dokumentu igorlea denean, hau elebiduna izaten da, eta hartzaileak euskaraz idatzi duenean edo euskara erabiltzea nahi duela jakinarazi duena, dokumentua euskaraz egoten da.

2.1.2. Herritarren eskaerei zein hizkuntzatan erantzun

Harremana euskaraz nahi duenean edo dokumentuak euskaraz igorri dituenari, euskaraz erantzuten zaio; eta bietan jasotako komunikazioei, ele bietan erantzuten zaio.

2.2. Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

2.2.1. Harrera

Telefonoz edo aurrez herritarri zerbitzua ematen zaionean, euskarazko harrera bermatzen dugu.

2.2.2. Telefonoz, online, eta aurrez aurre gauzatutako ahozko harremanak

Langileak herritarri lehen hitza eta lehen esaldia euskaraz egiten dizkio, aurrez aurre nahiz telefonoz, eta ondoren herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraitzen duelarik.

II. ARDATZA.- LAN HIZKUNTZA

1. Barne-komunikazioa eta lan tresnak

Langileek itzultzaile-neuronak eta hiztegi desberdinak erabiltzen dituzte, eta azkenengo urteetan itzulpen-zerbitzuetara jotzea saihestsi da.

1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

- o Errotulazio txikia: karpeten bizkarrak, apaletako errotuluak, artxiboak, e.a. orokorrean gaztelaniaz daude.
- o Errotulazio aldakorra eta informala (behin-behinekoa): hauek ere orokorrean gaztelaniaz daude.
- o Egitasmo jakinen izenak: sozietateak ez ditu orokorrean egitasmoak antolatzen, hauek talde mailan kudeatzen dira.
- o Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak: orokorrean gaztelaniaz daude.
- o Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa: orokorrean ele bietan daude, nahiz eta errotulazio batzuk oraindik gaztelaniaz bakarrik egon.
- o Kafe- eta janari-makinen errotulazioa, fotokopiagailuak, e.a.: honelako errotulaziorik bulegoetan ez daukagu.





1.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

1.2.1. Informaziorako edota komunikaziorako tresnak

Ez dauzkagu idatzizko komunikaziorako tresna zehatzik (zirkularrak, intranet, ohar eta iragarki taulak, barne izapideak egiteko baliabideak, e.a.).

1.2.2. Lan-bileretako idatziak

Langile guztiak euskaldunak izanik, lan-bileretako idatziak euskaraz egiten dira, deialdiak eta aktak egiten direnean euskaraz egiten direlarik.

1.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak

Oro har, barne harremanetarako idatziak euskaraz sortzen dira. Harreman horietatik gehienak komunikatibo errazen bitartez dira (posta elektronikoak, WhatsAppak, eta Teams programaren bitartez, nagusiki) eta orokorrean euskaraz egiten dira.

1.2.4. Erregistroa

Sozietateak ez dauka erregistro elektronikorik, jakinarazpen eta idazkietan datuak biltzeko edo datuak prozesatzeko.

1.2.5. Prozedurak eta administrazio-espeditentek izapidetzeko hizkuntza

Sozietateak ez ditu prozedurak eta ez ditugu administrazio-espeditentrik izapidetzen.

1.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

1.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak

Bileran parte hartzen duten kide guztiak euskaraz gaitasun nahikoa dutenean, euskaraz egiten dira bilerak. Lan-bilera horiek sozietatearen langileekin direnean euskaraz izaten dira, guztiak baitute gaitasun nahikoa euskaldunak izanik; bilera hauetan kanpoko partaideak daudenean, hauen euskara gaitasunak mugatzen du hizkuntza, eta horren ondorioz orokorrean gaztelaniaz izaten dira.

1.3.2. Erakundearen barruko telefonozko aurrez aurreko harremanak

Lankideen arteko telefonozko eta aurrez aurreko ahozko harremanak euskaraz izaten dira orokorrean.

1.4. Baliabide informatikoak

1.4.1. Euskarazko bertsioak instalatzea

Baliabide informatiko guztiak gaztelaniaz dauzkagu, garrantzitsuenak

- Kontabilitateko softwareak: software hau talde mailan kudeatzen da eta oraingoz oso zaila dirudi euskarazko bertsioa instalatu ahal izatea.
- Kalitate- eta ingurumen-sistemen softwareak: hauek ere talde mailan kudeatzen dira eta oraingoz oso zaila dirudi euskarazko bertsioa instalatu ahal izatea.
- Office 365: software hau ere talde mailan kudeatzen da eta aztertu daiteke ia euskarazko bertsioa instalatzea dagoen.





- o Sistema eragilea: gaztelaniazko bertsioa erabiltzen dugu baino euskarazkoa jarri dezakegu.
- o Nabigatzaileak: gaztelaniazko bertsioa erabiltzen dugu baino euskarazkoa jarri dezakegu.

1.4.2. Euskarazko bertsioen erabilera

Esan bezala software guztiak gaztelaniaz ditugu, baino ahal den neurrian sistema eragilea eta software estandarren euskarazko bertsioak erabiltzea sustatu daiteke.

2. Pertsonen kudeaketa

2.1. Pertsonen kudeaketa

Lan-talde osoa euskalduna izanda, lankideekiko eta arduradunekiko komunikazio profesionalak euskaraz egiten ditugu, baldintzek ahalbidetzen duten esparru eta arlo guztietan.

2.2. Lanerako prestakuntza

Langileen %75ak 3. HE eta 4. HE izanda, ez da printzipioz beharrezkoa ikusten euskara arloan ikastaroak izatea.

Laneko barne-prestakuntza orokorra talde-mailan antolatzen da, oro har, eta talde-mailan euskaren gaitasun oso desberdina izanda, formakuntza gaztelaniaz izaten da; aldiz kanpoan antolatutako ikastaroen hizkuntza, ikastaroaren arabera izaten da, baino oro har, gaztelaniazko ikastaroak izaten dira.

2.3. Ikastaroen kudeaketa

Ez daukagu ikastaroetan izena emateko tresna informatikorik; barne-prestakuntza posta elektronikoz jakinarazten da normalean eta izen-ematea ere horrela izaten da.

3. Kanpo-harremanak

3.1. Administrazioa

3.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak

Oro har, sozietatea dokumentu igorlea denean, idatzia ele bietan bidaltzen du; aldiz, sozietateak beste administrazio batetik dokumenturen bat jasotzen duenean erantzuna euskaraz izaten da idatzia euskaraz badago eta ele bietan bestela. Adibide bezala: ikuskarien txostenak eta urteko kontuak, aurrekontuaren eta legezketasunaren betetzearen txostena, e.a. ele bietan idazten dira.

3.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak

Ahozko komunikazioei dagokienez, langileek lehen hitza euskaraz egiten dute beti, eta solaskideak euskaraz baldin badira euskaraz jarraitzen dute elkarizketa.

Era berean, beste administrazio batek komunikazioari hasiera ematen dionean, langileek hizkuntza horretan erantzuten diote.





3.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsone juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, e.a.

3.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak

Harreman mota honen azterketa egiteko sozietateak sortzen eta jasotzen dituen dokumentuak izan behar ditugu kontutan:

- Jakinarazpenak, posta elektronikoz mezuak, WhatsAppak, e.a. euskaraz egiten dira hartzaileak euskara menperatzen duenean; hartzaile orokorra bada ele bietan eta erdalduna bada berriz gaztelaniaz.
- Kontratuak (errentamendu-kontratuak, errentamendu-kontratuak erosteko aukerarekin, lagatze-kontratuak, salmenta kontratuak, errentamendu-kontratuen suntsiarazpenak, kontratuen eranskinak, e.a.): dokumentazio guzti hau orokorrean gaztelaniaz bakarrik daukagu.
- Aukeren mapa, fitxa komertzialak: gaztelaniaz bakarrik daude.
- Sozietatearen kontseiluak eta batzarrak: dokumentazio guztia ele bietan sortzen da.
- Kalitate- eta ingurumen-sistemen dokumentazioa: oraingoz dokumentazio gehiena gaztelaniaz bakarrik sortzen da, eta barnezein kanpo-ikuskaritzak, oro har, gaztelaniaz egiten dira.
- Eskriturak: notaritzekin lan egiten denez, dokumentazio guztia, sozietateak idazten duen agiria ezik, gaztelaniaz bakarrik sortzen da.
- Bideragarritasun azterketak, proiektuak: oso dokumentu astunak izanik, eta dokumentu hau sortu eta erabiliko duten pertsonen euskara maila baxua edo inolako izanda, planoen izenburua ezik, dokumentua gaztelaniaz idazten da.
- Kontratazioa:
 - Kontratu txikiak: kontabilitate software bitartez sortzen dira memoria eta eskaerak eta oraingoz gaztelaniazko aukera bakarrik daukagu. Hiru hilabetero argitaratzen dugun kontratuen zerrenda ele bietan egiten da.
 - Kontratazio publikoa lehiaketa bitartez: hauek talde-mailako web orrian argitaratzen dira, eta zintzilikatzen den dokumentazio guztia gaztelaniaz bakarrik idazten da; lehiaketa prozesuan egiten diren txostenak gaztelaniaz bakarrik sortzen dira.
- Fakturak: sozietatearen faktura eredua ele bietan dago, baina bete beharreko testua euskaraz bakarrik betetzen da. Aztertu beharko litzateke ea ele bietan betetzeko aukera dagoen.

Produktu- eta zerbitzu-hornitzaileei dagokionez, faktura gehienak euskaraz bakarrik jasotzen dira.





3.2.2. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak

Sozietatearen langileak euskaldunak izanda, ahozko harreman hauetan, euskaraz hitz egin ahal izatea, erakunde pribatuen langileen euskara mailaren menpe dago.

Edonola ere langileen lehen hitza euskaraz egiten da eta euskaraz jarraitzen da, solaskideen ulermena bermatzen den heinean.

3.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, e.a.

Aurreko puntuan talde mota hauekin izaten ditugun harreman mota gehienak aztertu dira sozietateak duen akziodun egitura dela eta, bestelako harreman hauetan akzioduna, taldeko enpresa izan baitaiteke, erakunde kolaboratzailea edota aliatua, egoeraren arabera, edonola ere:

3.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak

Euskaraz izaten dira, ulermena bermatzen denean eta hala adostuta badago.

3.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak

Euskararen erabilera baldintzatzekotan beste erakundeetako langileek baldintzatzen digute.

4. Kudeaketa sistema

4.1. Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea

4.1.1. Hizkuntzen kudeaketa, helburuak eta ebaluazioa

4.1.1.1. Estrategia eta kudeaketa

Aurreneko euskara plan hau burutu arte, langileak euskaldunak izanik, euskara erabilera bultzatzen zuten ulermena bermatzen zenean, eta euskarari lehentasuna ematea zen irizpide orokorra baina ez ziren euskararen erabilera sustatzeko helbururik finkatzen eta beraz jarraipenik egiten. Gainera azpimarratu beharra dago langilegoa 100% euskalduna 2019tik dela, eta hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko baliabideek ere euskarari bultzada ona eman diotela, gehien bat sozietatearen idatzizko harremanetan; baino esan bezala, inolako helburu zehatzik finkatu gabe.

Plan honen helburu nagusia euskararen erabilera areagotu eta berau erakundearen kultura edo sistematikan integratzea denez, kudeaketa eredu estandarrak aintzat hartu eta bereganatu egin behar ditu; egungo diagnostikoa eginda helburu zehatz batzuk ezarriko dira eta hauen betetzearen inguruan neurketa egingo da urtean bitan adierazleak bitartez.

4.1.1.2. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa

Sozietateak sustatzen dituen proiektuek ingurumen-ebaluazioa izaten dute, eta ebaluaketa honek zehazten du ea hizkuntza-inpaktuaren ebaluaketa egitea beharrezkoa den edo ez.





- 4.1.1.3. Proiektu estatistikoak
Sozietateak ez ditu mota honetako proiektuak garatzen.
- 4.1.2. Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak
 - 4.1.2.1. Giza baliabideak
Langilegoa euskalduna izanik eta jarrera proaktiboa dutenez, euskaren erabilera bermatzea errazagoa da, baina orain arte ez zuten euskara bultzatu ahal izateko planik, helburu zehatzik eta ezta honen eboluzioaren jarraipena egiteko tresnarik ere.
 - 4.1.2.2. Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko baliabideak
Baliabide hauek oso erabilgarriak izan dira gehien bat idatzizko harremanetako.
 - 4.1.2.3. Itzulpen irizpideak
Itzultzaile neuronalak erabiliz, eta egindako itzulpena berrikusi ondoren, kalitate-maila handiko testuak sortzen dira, azkenengo hiru urteetan, itzultzaileengana jo gabe.
- 4.2. Erabiltzaileak edo herritarrak eta produktu edo zerbitzua
 - 4.2.1. Erabiltzaileak edo herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa
 - 4.2.1.1. Dirulaguntzak
Sozietateak ez ditu dirulaguntzak kudeatzen.
 - 4.2.1.2. Kontratu publikoak
Kontratu publikoen inguruko azterketa eginda dago 3.2.1 puntuan.
 - 4.2.1.3. Hitzarmenak
Sozietateak sinatzen dituen hitzarmenak orokorrean sektore publikoko beste erakunde batekin sinatzen direnez ele bietan sortzen dira, eta euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza-klausulak ere sartzen dira batzuetan.
- 4.3. Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea
 - 4.3.1. Langileen kontratazioa eta barne-sustapena
 - 4.3.1.1. Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak
Sozietateak egindako azkenengo kontratazioetan, guztira hiru, 3 H.E. eskatu zaie hautagaiei, bik 3 H.E. dutelarik eta hirugarrenak 4 H.E.
 - 4.3.2. Lidergoa eta parte-hartzea
Zuzendaritzak hizkuntzen kudeaketa sustatzen du, eta kudeaketa hori gauzatu eta zabalduko die lankideei elkarlanean plana burutu ahal izateko.





5 2023-2025ko ILDO ESTRATEGIKO ETA EKINTZAK

Zerbitzu-hizkuntzari dagokionez BOISAk euskaren erabilera bermatzen du eta orokorrean euskaren erabilera egokia da nahiz eta oraindik erabilera maila handitzeko aukerak izan.

Lan-hizkuntzan berriz erabilera hori hobetzea dagoela ondorioztatzen da, beraz lan gogorrena arlo honetan egin beharko da.

Plan honen bitartez BOISAk "EAE Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak" bereak egiten ditu.

Jarraian zehazten ditugu 2023-2025 urteetarako aurreikusitako ekintzak:

Zerbitzu-hizkuntza

Erakundearen irudia - Errotulazioa:

- Irun eta Lezo bulegoetako eta Nabalaldea poligonoko errotulazio berria eta zaharra ordeztu behar denean, euskara hutsez jarriko da testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean, euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean, edo mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.
- Kanpoko errotulazioari dagokionez, eta BOISAk parte hartzen duen jabeen erkidegoetan, errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan idaztea sustatuko da.

Erakundearen irudia - Ingurune digitala:

- Taldeko web orrian hasierako orria euskaraz izatea eskatuko da.

Lan-hizkuntza

Barne komunikazioa eta lan tresnak – Lanari lotutako hizkuntza-paisaia:

- Errotulazio txikia: erabiltzen diren karpeten bizkarrak, apaletako errotuluak eta artxiiboak, euskaraz jarriko dira.
- Errotulazio aldakorra eta informala (behin-behienekoa): euskaraz jarriko da.
- Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak: euskaraz jarriko dira.

Barne komunikazioa eta lan tresnak – Baliabide informatikoak:

- Office 365, sistema eragilea eta nabigatzaileak euskaraz jarriko dira.
- Talde-mailako softwareei dagokionez euskaraz jartzeko aukera aztertuko da.

Kanpo harremanak – Erakunde pribatuak: bezeroak, finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, e.a.:

- Kontratuak (errentamendu-kontratuak, errentamendu-kontratuak erosteko aukerarekin, lagatze-kontratuak, salmenta kontratuak, errentamendu-kontratuen suntsiarazpenak, kontratuen eranskinak, e.a.): ele bietan sortuko dira, hauen eredu batzuk zehaztuz.
- Aukera mapa, fitxa komertzialak: ele bietan sortuko dira.
- Fakturak: gorputza ele bietan egonda, kontzeptua ere euskaraz jartzeko aukera izatea eskatuko da, honekin hornitzaileen gain ere eragiteko asmoz.
- Kontratu txikiak: eskaera orria eta memoria euskaraz egitea bultzatuko da.
- Kontratu publikoak lehiaketa bitartez: zintzilikatzen den dokumentazioa talde-mailen egiten denez zaila ikusten da ele bietan landu ahal izatea, baina





lehiaketa hauen txostenen idazketan BOISAk parte hartzen duenez, ele bietan egingo dira.

Kudeaketa sistema – Hizkuntzen kudeaketa, helburuak eta ebaluazioa:

- Plana komunikatu: plana langileei, aliatuei, taldeko enpresei eta erakunde kolaboratzaileei komunikatu eta pertsona gehien inplikatzeko saiatu.

Kudeaketa sistema – Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

- “EAE Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak” ezagutza bultzatu langileen artean.
- Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko baliabideak: baliabide berrien jarraipena egingo da, eta hauen erabilera sustatu, adibidez “Itzulpen laburretarako Zerbitzua” orain arte erabili ez duguna.

6 ERANSKINA

Planaren jarraipena egin ahal izateko eranskin bezala aginte panela jasotzen da.

Irunen, 2022ko azaroaren 11n

